



Caritas Bizkaia pertsonen GIZARTE SUSTAPENAREN alde agertu da, 2016ko urteko txostenaren aurkezpenean

- Laneratze eta gizarteratze arloko konpromisoaren barruan, laguntza jasotzen duten pertsonekin batera, bizitza duin bat izateko aukerak sortu nahi dituzte, lan duinaren eta ekonomia solidarioaren aldeko apustuaren bidez, beste gauza batzuen artean.
- Harremanen garrantzia (elkarbizitza, harreman-sareak, pertsonen errekonozimendua) nabarmendu dute, pertsona askoren gizarte babesgabetasun-egoerari buelta emateko tresna gisa.
- 2016an Caritas Bizkaia gizarte-bazterkeria egoeran dauden 10.519 pertsona eta familiaren ondoan egon da, babesa ematen. Horien %56 emakumeak dira, eta, %43, berriz, gizonak; jatorriari dagokionez, erdia bertakoak dira eta beste erdia kanpotarrak, %50ean, eta arreta jaso duten familien erdiak adingabeak euren kargura dituzten emakumeak dira.
- Gainera, 2016an Caritas Bizkaiak nazioarteko babesa edo asiloa eskatu duten 89 pertsonari eman die laguntza, proiektu desberdinen bidez. 17 nazionalitate desberdinetako pertsonak izan dira.
- Pasa den urtean, 2016an, Caritas Bizkaiak babesgabetasun eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonengan jarri du fokoa, baina horretaz gain, pertsonen duintasuna aitortzearen garrantzia nabarmendu du. Pertsonengan zentratutako ikuspegiak landu eta zerbitzu-politika zentzudunen bidez elkarbizitza eta kohesio soziala bilatu beharra aipatu du (legeen funtsaren eta horien garapenaren arteko koherentzia).

Pertsonekin garatutako ekintza-ildo nagusiak:

ERRONKA NAGUSIA babesgabetasun eta bazterkeria egoeran dauden pertsonen eta familien aktibazioa eta sustapen soziala da, aukerak eta eskaintza bakoitzaren errealitate eta ezaugarrietara egokituz.

Ildo horretan, laneratze eta gizarteratze arloko 273 ikastaro eta tailer antolatu dira. 2.055 pertsonak parte hartu dute (alfabetatzea, sukaldaritza, jostintza, euskara, gaztelania, autoestimua, gorputz adierazpena, elektrizitatea, informatika, pintura, eguneroko bizimodurako trebetasunak...)

LANERATZEAREN arlorik espezifikoenean 2.000 pertsonak jaso dute laguntza 2016an, beren enplegu-ibilbidean.

Une honetan 19 ikastaro daude martxan eta 350 pertsona parte hartzen ari dira (gizarte eta lan arloko trebetasunak, mendekotasuna duten pertsonen gizarte eta osasun arreta ematea – erakundeetan eta etxean-, etxeko zerbitzua, eraikinen garbiketa...). Aldiz, 2016an, 63 pertsonak amaitu dute prestakuntza eta 39k lortu zuten lana.

Gainera, lan-aurreko prestakuntzarako 4 tailer ditugu. 2016an 90 pertsonak parte hartu zuten horietan (industria arloko produkzioa eta nekazaritza arloa). Bazterkeria arriskuan dauden

pertsonentzako laneko orientazio espezializatua ere landu da, 515 pertsonarekin. Lan bila dabilen 1.461 pertsonarekin lan bitartekaritza egin da eta 234 lan-eskaintza egon dira: 131 pertsonak lortu dute laneratzea; horietatik 57 mugarik gabeko kontratuarekin. Era berean, autoenplegurako programen bidez, 73 pertsonak jaso zuten laguntza eta 9 negozio jarri ziren martxan.

Azkenik, Caritasek parte hartzen duen laneratze eta gizarteratze enpresetan ekonomia solidarioa landu da. 326 lanpostu daude.

Familia arloko akonpainamenduari dagokionez, gurasoei babesa eman zaie. Heziketaren inguruko 20 tailer eman dira eta 250 familia inguruk hartzen dute parte lan-taldeetan.

2016an Caritas Bizkaiak 103 familiari eman die babesa gizarte eta heziketa arloko esku-hartzearen bidez. 560 haurrei eman die babesa gizarte eta prestakuntza prozesuetan, 24 proiektuen bidez, eta 616 haur egon dira udalekuetan.

Era berean, kontziliazio eta zainketa arloko laguntzan, "Esku-Onetan" proiektuaren bidez, mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten 37 familiak izan dute atsedean hartzeko aukera.

Gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonen akonpainamendu osoari dagokionez, etxerik gabeko pertsonentzako eguneko zerbitzuek (jantokia, dutxak, eguneko zentroa, informazioa eta entzutea eta abar Ezkerraldean, Durangaldean eta Bilbon) etxerik gabeko mila pertsona baino gehiagori eman diete arreta.

Caritas Bizkaiak bazterkeria egoeran zeuden 226 pertsonari eman dio laguntza, bizi-egoera hobetzeko xedez.

Azkenik, gaueko Hontza zentroak gizarte-bazterkeria egoeran larrian zeuden 644 pertsonari eman zien arreta.

Edadetuen akonpainamenduari dagokionez (harremanak), 397 edadetuk jaso dute laguntza etxean edo egoitza batean gure programen bidez, 2016an: dinamizazio-taldeak, harreman eta aktibazio jarduerak, eguneko zentroak...

Era berean, 2016an 224 pertsona sartu dira etxebizitza "parkean". Hainbat motatako **74 etxebizitza** daude, eta tutoretzapeko beste 8 pisu, kolektibo desberdinei harrera egiteko, hala nola: adikzioak gainditzen ari direnak, emantzipazio-prozesuan dauden gazteak, adingabeak... Gainera, etxerik gabeko pertsonentzako 50 plaza ere badaude (egoitzak, pentsioak...). Guztira, 249.794€-ko laguntzak bideratu dira etxebizitza arlora.

Laguntza ekonomikoa: 2016an Caritas Bizkaiak 1.669.458 euro **inbertitu** ditu laguntza ekonomiko gisa, diru-sarrerarik gabeko edo diru-sarrera txikiegiak dituzten pertsona eta familiei babesa emateko, erakundearen proiektuen bidez (Caritas Euskadi osoan 5.305.429 euro inbertitu dira).

Era beran, **Caritas Bizkaiak kooperazio arloko** hainbat ekimenetan parte hartu du; herrialde pobretuetako garapen-lanetan, arlo produktiboan, heziketaren garapen eta komunitateen sendotzean eta abar. 35.488 pertsonak eta 950 familiak parte hartu dute 2016an eta Caritasek 366.132 €-ko inbertsioa egin du.

Caritas Bizkaiaren beste funtsezko ildoetako bat SENTSIBILIZAZIOA da. Urte honetan DENON ONDASUNAREN inguruan hitz egin da, hainbat kanpainaren bidez:60.

urteurrenagatik eskerrak ematea, bizitzako gauzarik onenak denon artean eraikitzen direla, bizitzako gauzarik onenak beste era batera egiten direla, bizitzako gauzarik onenak ez direla gauzak, etxerik gabeko pertsonen kanpaina: “Posible delako: Inor ez etxerik gabe!”, ELKARBIZITZA, KOHESIO SOZIALA, BALIOAK... hobetu nahi ditugu.

207 sentsibilizazio-ekintza burutu dira. 5.000 pertsona baino gehiagok parte hartu dute, 51 ekintza burutu dira Bizkaiko ikastetxeetan, zurrumurruen aurkako 26 hitzaldi eman dira *argi ibili-no te encalles* estrategien barruan.

Era berean, ekonomia sozial eta solidarioaren zabalkundearen barruan, gaiaren inguruan hainbat ekimen antolatuta dira: jardunaldi eta ikasgela sozialak, kanpaina bat, aldizkari bat ia modu monografikoan eta ekimen zehatzen zabalkundea: Goiener, Kidenda, Fiare...

Azkenik, **BOLUNTARIOEI eta GIZARTE OINARRIARI** dagokienez, Caritas Bizkaiak 2.434 BOLUNTARIO (horietatik 233 2016an hasitako boluntario berriak dira) eta 4.791 **bazkide eta emaile** ditu: Guztiei gure eskerrik beroenak, bihotz-bihotzez (Caritas Euskadiren barruan 4.348 pertsona boluntariok parte hartu dute).

GURE ESPERIENTZIA ETA BEGIRADAREN BIDEZ, ZERA BEHATZEN ARI GARA:

- Hobekuntza ekonomiko bat antzematen den arren, ez dugu ahaztu behar pobrezia eta bazterkeriaren alderik ilunena bizitzen ari den jendea. Pobreziaren eta babesgabetasunaren gurpilean trabatuta geratzen ari den jendea, ataka horretatik irteteko zailtasunak kontuan izanda.
- Babesgabetasun egoerak gero eta konplexuagoak dira eta erantzun sendo eta osoagoak behar dituzte.
- Familia elkartasun eremu handia da oraindik ere. Laguntza emateko ahalegin hori nekea eragiten ari da bereziki ahulak diren familietan.
- Esperientziak irakatsi digu posible dela bizi-kalitatea hobetzeko aukerak sortzea, betiere osagarriak badira:
 - Babes ekonomikoaren bermea
 - Pertsonen parte-hartze eta harremanen dimentsioaren garapena bideratzen dituzten gizarteratze-ekimenak.
 - Laneratzeko aukerak.

Horregatik guztiagatik, gizarte osoari **DEI** egin nahi diegu, elkartasunean, doakotasunean, zerbitzuan eta iraunkortasunean oinarritutako gizarte eredu bat bilatzeko. Pertsona guztien eskubideen defentsan lan egiten duen gizarte bat, elkarbizitza eta kohesio soziala bermatuz. **“Bizitzako gauzarik onenak ez dira gauzak”**.

Administrazioei ere dei egin nahi diegu pertsonak (bereziki babesgabeenak) ardatz hartuko dituzten politikak garatzeko. Pertsonen duintasuna bermatzen duten laneratzeko eta gizarteratze politikak.

Enpresei dei egin nahi diegu duintasuna bermatu eta prekarietatea baztertu dezaten eskatzeko.

Eta, azkenik, Kristau Komunitateari dei egin nahi diegu, gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen aldeko eta gizarte eredu bidezko baten eraikuntzarako konpromisoa mantendu dezan.



Caritasek bere urteko memoria aurkeztu du, Euskadin garatzen dituen 372 proiektuen inguruan

- Gasteiz, Bilbo eta Donostiako Elizbarrutietako Caritasek gaur aurkeztuko dituzte 2016an egindako gizarte esku-hartzeari dagozkion urteko memoriak

- Caritasen laguntza 5,3 milioi eurotik gorakoa izan da 2016an Euskadin

2017ko ekainaren 14a.- Euskadin lan egiten duten hiru Caritasek eskainitako laguntza ekonomikoak ia %7 igo ziren 2015arekiko. Igoerak antzekoak izan ziren hiru lurraldeetan, eta guztira 5.305.429,03 €-koa izan zen 2016an. Zifra hori Caritasek 2007an (krisi ekonomikoaren aurretik) EAEn bere gain hartutako gastua baino **milioi bat euro altuagoa** da.

Azken urteotan Caritasek jende askoren laguntza jaso du. Erakundeak eskerrak eman nahi dizkio kristau komunitateari, eta, orokorrean, gizarte osoari, pobreziaren aurkako borrokan erakutsitako konpromiso eta inplikazioagatik. Hala ere, gogorarazi nahi du bere lanarekin jarraitzeko **laguntza ekonomikoa** behar duela. Erakundearen beraren esanetan, Caritasen jarduerak sortutako kostua norbere fondoekin estaltzen da batez ere; diru-sarreraren %30a soilik dator Administrazio Publikoetatik.

2016an ere Caritasek lanean jarraitu zuen baztertutako pertsonen **laneratzea** bideratzeko prestakuntza- eta gaikuntza-prozesuetan. Horrela, pertsona horiek lan duin bat lortzeko aukerak izango dituzte, duintasunez bizi eta arlo pertsonalean eta komunitatean garapen bat eduki ahal izateko.

Egiteko hori hiru lurraldeetako herri gehienetan burutzen da. Hiru Caritasen artean **372** proiektu dituzte martxan.

Pasa den urtean, Euskadiko Caritaseko **4.348 boluntario** aritu ziren lanean, Euskadiko Autonomia Erkidegoan gehien sufritzen ari diren pertsonen laguntzen.

Karitatearen Astea

Karitatearen Astea antolatu dute hiru Caritasek, egun hauetarako. Ekainaren 18an izango da egun nagusia eta amaiera, Karitatearen Egunean. Caritasek bere kanpaina instituzionalaren mezua ikusgai jarri du parrokiak komunitateetan: **“Komunitate izateko deituak”**. Datorren asteburuan Euskadiko osoko mezetan bildutakoa Caritasen jardueren jarraipenera bideratuko da.

Caritasek dei egin nahi dio gizarte osoari kanpainarekin bat egin dezan, babesa, laguntza eta itzaropena behar duten pertsonekin egoteko. Caritasek **pobreziaren aurkako konponbidearen PARTE IZAN** gaitzen nahi du, ahulenen alde lan egiten jarraitu ahal izateko, boluntarioen konpromiso pertsonalaren bidez edo/eta ekarpen ekonomikoaren bidez.